# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-5536

314/1998 DEKRETUA, azaroaren 17koa, Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua arautzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legearen 14. atalean Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua sortu zen, Jaurlaritzaren eta unibertsitate publikoaren jarduerak koordinatzeko asmoz; Kontseiluan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak hartuko dute parte, kide kopuru beraz. Kontseiluaren helburua da unibertsitatearen arloko ekintza guztien koordinazioa eta horrekin zerikusia duten agente guztien arteko akordioa batzuengana zein besteengana helaraztea, bai eta erakunde horren aholkularitza eta partaidetza bermatzea ere unibertsitate-sistema publikoaren xedeak eta helburuak zehazteko garaian.

Dekretu honetan ez da arautuko bilkuren araubidea, ezta Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak erabakiak hartzeko izango duen araubidea ere, ahalmen hori Kontseiluari berari baitagokio aipatutako Legearen arabera.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko azaroaren 17an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Izaera eta egoitza.

1.– Unibertsitate publikoko sistemaren xedeak eta helburuak zehazteko aholkularitza eta partaidetza organoa da Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.

2.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egituraren barruan dagoen organoa izanik, Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua Sail honen egoitza nagusian kokatuko da eta beronen aurrekontuen pentzutan finantzatuko da.

*2. atala.*– Eginkizunak.

1.– Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak eginkizun hauek izango ditu:

a) Unibertsitate Planari buruzko txostena egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antola-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-5536

DECRETO 314/1998, de 17 de noviembre, por el que se regula el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria.

La Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, buscando la coordinación entre las acciones del Gobierno y la Universidad pública, crea en su artículo 14 el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria en el que participan, paritariamente, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. Se quiere, con la creación de este Consejo, que la coordinación de todas las acciones en materia universitaria y el acuerdo entre todos los agentes implicados alcance a unos y a otros, así como garantizar el asesoramiento y la participación de esta institución en la determinación de las finalidades y objetivos del sistema universitario público.

En el presente Decreto no se regula el régimen de las sesiones ni el régimen de adopción de acuerdos por el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria ya que la Ley de su creación reserva esta facultad al propio Consejo.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 17 de noviembre de 1998,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Naturaleza y sede.

1.– El Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria es el órgano de asesoramiento y participación para la determinación de las finalidades y objetivos del sistema universitario público.

2.– El Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria, como órgano colegiado integrado en la estructura del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, tendrá su ubicación en la sede central de este Departamento y será financiado con cargo a sus presupuestos.

*Artículo 2.*– Funciones.

1.– El Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria tendrá las siguientes funciones:

a) Informar el Plan Universitario en los términos establecidos en el artículo 11 de la Ley 19/1998, de 29

tzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legearen 11. atalean ezarritakoaren arabera eta Jaurlaritzak behin betiko onartu aurretik.

b) Titulazioak ezartzeko edo ezabatzeko proposamenei buruzko txostenak egitea, baita ikasketa planak egiteko eta aldatzeko proposamenei eta ikastetxeak sortzeko edo ezabatzeko proposamenei buruzkoak ere.

c) Unibertsitate Plana nola gauzatzen den aztertzea eta bete dadin zaintzea, eta, hala badagokio, beharrezkoak diren aldaketak proposatzea.

d) Aurrekontuak egiteko, irakasleen eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen plantilla tajutzeko, eta inbertsiorako eta azpiegituretarako hainbat urtetarako programa burutzeko Unibertsitateak erabili dituen irizpideen berri izatea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legea garatzeko Jaurlaritzak eman beharreko xedapen orokorren egitasmoei buruzko txostenak egitea.

f) Unibertsitate berriak sortzeko eta aitortzeko prozedurei buruzko txostenak egitea, dagokion lege-egitasmoa Jaurlaritzari bidali baino lehen.

g) Unibertsitate eta enpresen artean harremanak sustatzea, horretarako bideak eta neurriak proposatzea eta Jaurlaritzak proposatzen dituen neurriei buruzko txostenak egitea.

h) Ikasketa eta ikerketarako beka eta dirulaguntzen arloko oinarrizko jarraibideei buruzko txostenak egitea.

i) Ikasturte bakoitza amaitutakoan txosten bat ematea, Unibertsitate Planean aurreikusitako helburuak noraino bete diren eta aldakuntzak edo zuzenketak sartzea beharrezko edo egoki den ebaluatuz.

j) Urtero txosten bat ematea, programen helburuak noraino bete diren eta Unibertsitate Planean aldakuntzak sartzea beharrezko edo egoki den ebaluatuz.

k) Urteko gastuen plana eta Kontseiluaren jarduerei buruzko memoria onartzea.

l) Legezko edo arauzko xedapenen bidez ematen zaizkion gainerako eginkizunak, edo Kontseiluan ordezkatuta dauden erakunde eta organoek ematen dizkiotenak, bere funtzioekin bat etorriz.

2.– Koordinazio Kontseiluak eman behar dituen txostenak Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legean ezarritako epeetan burutu beharko dira edo, bestela, Kontseiluaren Idazkaritzako erregistro osagarrian eskabidea erregistratu den egunetik hasita hiru hilabeteko epean.

*3. atala.*– Osaera.

de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con carácter previo a su aprobación definitiva por el Gobierno.

b) Informar las propuestas de implantación o supresión de titulaciones, así como las propuestas de elaboración y modificación de los planes de estudios y las de creación o supresión de centros.

c) Seguir la ejecución y cuidar del cumplimiento del Plan Universitario y proponer, en su caso, las modificaciones que sean precisas.

d) Ser informado sobre los criterios seguidos por la Universidad en la elaboración de sus presupuestos, plantillas docente y de administración y servicios y ejecución del programa plurianual de inversión en infraestructuras.

e) Informar los proyectos de disposiciones generales de competencia del Gobierno que se dicten en desarrollo de la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

f) Informar en los procedimientos de creación y reconocimiento de nuevas Universidades, con carácter previo a la remisión al Gobierno del correspondiente proyecto de ley.

g) Fomentar las relaciones Universidad-empresa, proponer procedimientos y medidas al efecto e informar las medidas que proponga el Gobierno.

h) Informar sobre las directrices básicas en materia de becas y ayudas de estudio y a la investigación.

i) Emitir, a la finalización de cada curso académico, un informe de evaluación sobre el grado de cumplimiento de los objetivos previstos en el Plan Universitario y la necesidad u oportunidad de introducir modificaciones o correcciones.

j) Emitir, con carácter anual, un informe de evaluación sobre el grado de cumplimiento de los objetivos de los programas y sobre la necesidad u oportunidad de introducir modificaciones en el Plan Universitario.

k) Aprobar el plan de gastos anual y la memoria de sus actividades.

l) Cualquier otra atribuida por disposiciones legales o reglamentarias o que le encomienden las instituciones y órganos representados, de conformidad con sus funciones.

2.– Los informes que deba emitir el Consejo de Coordinación serán evacuados en los plazos establecidos en la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco y, en su defecto, en el plazo de tres meses desde la fecha del registro de su petición en el registro auxiliar de la Secretaría del Consejo.

*Artículo 3.*– Composición.

1.– Honako hauek izango dira Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko kideak:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua; lehendakaria izango da.

b) Bost bokal, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren izenean, sailburuak izendatuta.

c) Unibertsitateko errektorea.

d) Unibertsitateko hiru kide, errektoreak izendatuta.

e) Gizarte Kontseiluko lehendakaria.

f) Gizarte Kontseiluko kide bat, gizartearen interesen ordezkarien artetik aukeratuta eta ordezkariek berek izendatuta.

2.– Koordinazio Kontseiluko lehendakariak aukeratuko du erakunde horretako idazkaria, Kontseiluko kideen artetik edo Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikita dauden A Taldeko Kidegoetako funtzionarioen artetik.

*4. atala.*– Kontseiluaren lehendakaritza.

1.– Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko lehendakariari honako eginkizunak dagozkio:

a) Kontseiluaren ordezkaria eta bozeramailea izatea.

b) Kontseilua zuzentzea eta ongi funtziona dezan zaintzea.

c) Legeak betetzen direla bermatzea.

d) Bilkura arruntetarako eta apartekoetarako deialdiak erabakitzea eta gai-zerrenda zehaztea; hala badagokio, Kontseiluko gainerako kideen eskaerak aintzakotzat hartuko ditu, deiaren aurretik denboraz egiten badira.

e) Bilkuren buru izatea, eztabaidak moderatzea eta, arrazoi justifikaturik egonez gero, horiek etetea.

f) Bere botoaren bidez hainbanaketak ebaztea erabakiak hartzeko garaian, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legean aurreikusitako kasuetan izan ezik.

g) Kontseiluaren erabakien ziurtagiriak eta aktak ikus-onestea.

h) Batzordeetan parte hartu behar duten Kontseiluko kideak izendatzea, hala badagokio.

i) Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren Araudian ematen zaizkion gainerako eginkizunak, edo taldeko organo baten lehendakari izateari datxezkionak.

1.– Formarán parte del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria los siguientes miembros:

a) El Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación que será su Presidente o Presidenta.

b) Cinco Vocales en representación del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por designación de su titular.

c) El Rector o Rectora de la Universidad.

d) Tres miembros de la Universidad nombrados por el Rector.

e) El Presidente o Presidenta del Consejo Social.

f) Un miembro del Consejo Social, elegido entre los representantes de los intereses sociales y designado por los mismos.

2.– El Secretario o Secretaria del Consejo de Coordinación será nombrado por su Presidente entre los miembros del Consejo o entre el personal funcionario perteneciente a Cuerpos del Grupo A, adscrito al Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*Artículo 4.*– La Presidencia del Consejo.

1.– Corresponden al Presidente o Presidenta del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria las siguientes funciones:

a) Ostentar la representación del Consejo y ser portavoz del mismo.

b) Ejercer la dirección del Consejo y velar por su adecuado funcionamiento.

c) Asegurar el cumplimiento de las leyes.

d) Acordar la convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias y la fijación del orden del día, teniendo en cuenta, en su caso, las peticiones de los demás miembros del Consejo que se formulen con suficiente antelación a la convocatoria.

e) Presidir las sesiones, moderar el desarrollo de los debates y suspenderlos por causas justificadas.

f) Dirimir con su voto los empates a efectos de adoptar acuerdos, a excepción de los casos previstos en la Ley 19/1998, de 29 de junio, de Ordenación de la Enseñanza Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

g) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos del Consejo.

h) Designar los miembros del Consejo que han de formar parte, en su caso, de las Comisiones.

i) Cualesquiera otras funciones que se determinen en el Reglamento del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria o cuantas otras sean inherentes a su condición de Presidente de un órgano colegiado.

2.– Lehendakariak eskuordetu ahalko ditu bere eginkizunak, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeko ekainaren 29ko 19/1998 Legearen 14.2 atalean ezarritakoari jarraituz.

*5. atala.*– Kontseiluaren idazkaritza.

1.– Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko idazkariari honako eginkizunak dagozkio:

a) Bai osoko bilkuraren edo lan batzordeen bileretara joatea, bai Kontseiluaren baitan sor daitekeen edozein organoren bileretara joatea, hitza eta botoa dituela, Kontseiluko kidea bada, eta botorik gabe, funtzionarioa bada. Bileren eta hartutako erabakien akta jaso beharko du, eta horiek ziurtatu eta jakinarazi horretan eskuduntza edo interesa duten organoei.

b) Lehendakariaren aginduz, aurreko lerroaldean aipatutako organoetarako deialdiak egitea, bai eta organo horietako kideentzako zitazioak egitea ere.

c) Errektoreak edo Gizarte Kontseiluko lehendakariak Koordinazio Kontseilurako aukeratzen dituzten kideen izendapenak jasotzea.

d) Kontseiluko kideen komunikazioak jasotzea, bai eta jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo ezagutu behar dituen gainerako idazkiak jasotzea ere.

e) Gaien biderapena prestatzea; bileretako aktak idatzi eta kautotzea.

f) Kontsulta, irizpen eta erabaki onartuen ziurtagiriak ematea.

g) Urtero, gastuen plana eta Kontseiluaren jarduerei buruzko memoria prestatzea.

h) Kontseiluaren Araudiak agintzen dion beste edozein eginkizun betetzea, edo taldeko organo baten idazkari izateari datxezkionak.

2.– Kontseiluko idazkariaren postua bete gabe badago, edo idazkaria ausente edo gaixorik badago, Kontseiluko lehendakariak izendatuko du haren ordezkoa.

*6. atala.*– Kontseiluko kideak.

1.– Taldeko organo baten kideak diren aldetik, Koordinazio Kontseiluko kideek indarreko legeriak oro har agintzen dizkien eginkizunak bete beharko dituzte, bai eta Kontseiluaren Araudian ezarritakoak ere.

2.– Ausentzia, gaixotasuna edo, oro har, arrazoi justifikaturen bat dela medio Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko kideak ordeztu beharra egonez gero, Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 17.1 atalean ezarritakoari jarraituko zaio.

2.– El Presidente podrá delegar sus funciones de conformidad con lo establecido en el artículo 14.2 de la Ley de Ordenación Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

*Artículo 5.*– La Secretaría del Consejo.

1.– Corresponden al Secretario o Secretaria del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria las siguientes funciones:

a) Asistir con voz y con voto si es miembro del Consejo o con voz pero sin voto si es personal funcionario, a las sesiones tanto del Pleno como de las Comisiones de trabajo o de cualquier otro órgano del Consejo que pueda crearse, levantando acta de las mismas y de los acuerdos adoptados, certificando y notificando éstos a los Organismos competentes o interesados en el procedimiento.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones de los órganos citados en el apartado anterior por orden de su Presidente, así como las citaciones a los miembros del mismo.

c) Recibir los nombramientos de los miembros del Consejo de Coordinación realizados por el Rector o por el Presidente del Consejo Social.

d) Recibir las comunicaciones de los miembros del Consejo así como las notificaciones, peticiones de datos, rectificaciones o cualquiera otra clase de escritos de los que deba tener conocimiento.

e) Preparar el despacho de los asuntos, redactar y autorizar las actas de las sesiones.

f) Expedir las certificaciones de las consultas, dictámenes y acuerdos aprobados.

g) Elaborar, anualmente, el plan de gastos y la Memoria de actividades del Consejo.

h) Cualesquiera otras que le asigne el Reglamento del Consejo o sean inherentes a su condición de Secretario o Secretaria de un órgano colegiado.

2.– En los casos de vacante, ausencia o enfermedad del Secretario o Secretaria del Consejo de Coordinación, el Presidente del Consejo nombrará a la persona que le sustituya.

*Artículo 6.*– Los miembros del Consejo.

1.– Los miembros del Consejo de Coordinación, en su carácter de miembros de un órgano colegiado, tendrán las funciones que les atribuye con carácter general la legislación vigente y aquellas otras que se especifiquen en el Reglamento del propio Consejo.

2.– En los casos de ausencia o enfermedad y, en general, cuando concurra alguna causa justificada, los miembros del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria serán sustituidos de conformidad con lo establecido en el artículo 17.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

*7. atala.–* Agintealdia eta kargu-uztea.

1.– Koordinazio Kontseiluko berezko kideek beren karguaz jabetzen diren egunetik aurrera beteko dituzte horri dagozkion eginkizunak, eta kargua utzitakoan eginkizun horiei ere utziko diete.

2.– Bai Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak aukeratu eta Eusko Jaurlaritzak Dekretu bidez izendatutako kideak, bai Unibertsitateko errektoreak izendatutakoak, bai Gizarte Kontseiluko lehendakariak gizartearen interesen ordezkaritzat izendatutakoak, lau urtez arituko dira eginkizun horietan izendatzen dituztenetik aurrera. Kasu hauetan utziko diete beren eginkizunei:

a) Agintealdia amaitutakoan.

b) Hiltzen badira.

c) Karguari uko egiten badiote; kidea izendatu duen organoari dagokio ukoa onartzea. Koordinazio Kontseiluko lehendakariak emango dio ukoaren berri izendapena egin zuen organoari eta horrek beste izendapen bat egingo du, hala badagokio.

d) Hautatuak edo izendatuak izateko zeukaten izaera galtzen badute.

*8. atala.–* Kontseiluaren funtzionamendua.

1.– Koordinazio Kontseiluaren jarduera arauak Kontseiluaren beraren erabakiz onartuko dira, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ditzaten aginduko da. Lehendakariaren botoak ez du ebazte-indarrik izango boto-hainbanaketa gertatuz gero.

2.– Dekretu honetako 2. atalean aipatutako gaiei buruzko ikerketak, proiektuak, eta programen jarraipen eta ebaluazioa burutzeko Lan Batzorderik osatuz gero, bertara aholkulari edo teknikoak azal daitezen eska dezake Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak. Lankidetzako lan horiek egiteko baldintzak aurreko idazatian aipatutako arauetan zehaztuko dira.

*9. atala.–* Baliabideak.

Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak, bere eginkizunak behar bezala betetzeko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako giza, material eta aurrekontuko balaibideak izango ditu.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Zerbitzuagatiko kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak ezarritakoaren arabera dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko kideek.

*Artículo 7.–* Mandato y cese de los miembros del Consejo.

1.– Los miembros natos del Consejo de Coordinación ejercerán sus funciones desde la fecha que hubieran tomado posesión del cargo que ostenten y cesarán en ellas al finalizar el desempeño del mismo.

2.– Los miembros designados por el Consejero de Educación, Universidades e Investigación y nombrados por el Gobierno Vasco mediante Decreto, así como los nombrados por el Rector o Rectora de la Universidad y por el Presidente del Consejo Social en representación de los intereses sociales, ejercerán sus funciones por un periodo de cuatro años desde la fecha de su nombramiento y cesarán en sus funciones en los siguientes supuestos:

a) Por expiración del mandato.

b) Por fallecimiento.

c) Por renuncia cuya aceptación será competencia del órgano que les hubiera nombrado. La renuncia será comunicada a través del Presidente del Consejo de Coordinación al órgano que realizó el nombramiento, que procederá, en su caso, a efectuar uno nuevo.

d) Cuando pierdan la condición por la que fueron elegidos o nombrados.

*Artículo 8.–* Funcionamiento del Consejo.

1.– Las normas de funcionamiento del Consejo de Coordinación se aprobarán mediante acuerdo del propio Consejo, sin que en ningún caso el voto del Presidente tenga carácter dirimente en caso de empate, y se ordenará su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– El Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria podrá recabar la presencia de asesores o técnicos en las Comisiones Trabajo que, en su caso, se constituyan para la realización de estudios, proyectos, seguimiento y evaluación de programas en las materias a que se refiere el artículo 2 del presente Decreto. Este personal desarrollará los trabajos de colaboración en los términos que se fijen en las normas a que se refiere el apartado anterior.

*Artículo 9.–* Medios.

Para el correcto ejercicio de sus funciones el Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria contará con los medios humanos, materiales y presupuestarios que le asigne el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Los miembros del Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria percibirán las indemnizaciones que correspondan de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

Kalte-ordain horiek jasotzea eta kontzeptu berengatik eman diezazkieketen bestelako hobariak jasotzea bateraezinak dira.

ALDI BATERAKO XEDAPENA

Unibertsitate-Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluaren eskumenekoak diren gaiak, edo hura eratu aurretik hasita zeuden espedienteak, baldin eta oraindik izapideetan badaude eta dagokien erabakia, epaitza edo txostena eman ez bada, Koordinazio Kontseiluari igorriko zaizkio, bere eskumenez baliatuz jardun dezan.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari baimena ematen zaio Dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

*Bigarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko azaroaren 17an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

La percepción de tales indemnizaciones será incompatible con cualesquiera otras gratificaciones que pudieran serles asignadas por los mismos conceptos.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los asuntos cuya competencia corresponda al Consejo de Coordinación de la Enseñanza Pública Universitaria o los expedientes iniciados con anterioridad a la constitución del mismo que estén en tramitación sin que sobre los mismos se hubiera efectuado resolución, dictamen o informe procedente, serán remitidos al Consejo de Coordinación para que este efectúe las actuaciones correspondientes a su competencia.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se autoriza al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.–* El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de noviembre de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

**Zk-5537**

AGINDUA, 1998ko azaroaren 26koa, Jaurlaritzaren lehendakariordearena, zeinaren bitartez José María Laresgoiti Pérez Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako sailburuaren ordenantza-gidari lanpostutik kentzen baitu.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 atalak xedatutakoaren arabera, eta Lege horrek ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hauxe

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**N°-5537**

ORDEN de 26 de noviembre de 1998, del Vicepresidente del Gobierno, por la que se dispone el cese de don José María Laresgoiti Pérez, como Ordenanza-Conductor Consejero de la Vicepresidencia del Gobierno.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 50.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y en uso de las atribuciones conferidas por esta Ley,